



EBALUAZIO-ERRUBRIKA

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



IRIZPIDEA	4-BIKAIN	3-OSO ONGI	2-NAHIKOA	1-ESKASA
Ortografia- eta gramatika-zuzentasuna (EUS 5.2 irizpidea)	Testuak ez du ia akats ortografiko edo gramatikalik. Puntuazioaren eta sintaxiaren erabilera bikaina da, eta ulermena errazten du.	Testuak oso akats txiki gutxi ditu, ulermenari nabarmen eragiten ez diotenak. Puntuazioaren eta sintaxiaren erabilera egokia da.	Testuak akats ortografiko eta gramatikal batzuk ditu, batzuetan mezuaren argitasuna zailtzen dutenak, nahiz eta edukia ulargarria izan.	Testuak akats ortografiko eta gramatikal ugari ditu, mezua ulertzea eragozten dutenak eta puntuazioaren eta sintaxiaren erabilera desegokia erakusten dutenak.
Ipuinaren egitura (EUS 5.1 irizpidea)	Narratibak oso egitura argia eta ongi definitua du: hasiera, korapiloa eta amaiera; lokailuak behar bezala erabili dira, paragrafoak logikoki lotzen dira eta ipuina koherentziaz antolatzen da.	Egitura, oro har, argia da, sarrera, garapen eta ondorio ezagunekin, baina badaude inkoherentzia txikiak atalen arteko trantsizioan.	Egitura oinarritzkoa eta apur bat desantolatua da; hasiera, korapiloa eta amaiera identifikatzen dira, baina haien arteko lotura ez da oso egokia. Lokailuen erabilera ez da guztiz egokia.	Ipuinak ez du egitura zehatzik; antolaketa nahasia eta inkoherentea da, narratibaren garapena ulertzea ahalbidetzen duen ordena logikorik ez du. Lokailurik ez da erabili.
Elementu narratiboak eta originaltasuna (EUS 5.2 irizpidea)	Istoria oso originala da. Hasteko eta amaitzeko formula eraginkorrak erabiltzen dira, pertsonaiak ondo definituta daude eta edukia aberasten duten ideia berritzaileak modu naturalean integratzen ditu kontakizunak.	Narratiba originala eta ondo garatua da; hasiera eta amaiera egokiak ditu, eta pertsonaiak definituta daude, nahiz eta zenbait alderditan sormen txikiagoa izan.	Istoria ez da oso originala, edo azaletik garatuta dago. Hasiera eta amaiera oinarritzkoak dira, eta pertsonaiak ez daude oso definituta edo ez dute elementu bereizgarriak.	Narratiba oso oinarritzkoa edo inkoherentea da, ez da hasteko edo amaitzeko formularik erabili eta pertsonaiek ez dute definiziorik eta originaltasunik.
Jariakortasuna (EUS 3.1 irizpidea)	Narrazioa argia eta arina da, intonazio eta erritmo egokiekin. Erregistro formalaren erabilera eraginkorra.	Narrazioa, oro har, argia da, erritmo edo intonazio arazo txikiekin. Erregistro egokia.	Narrazioak etenaldi luzeak ditu, edo erritmoa azkarregia da, edo ahoskera ez erritmo, intonazio edo argitasun arazoak direla eta.	Narrazioa ulertzea zaila da, erritmo, intonazio edo argitasun arazoak direla eta.
Uraren zikloaren irudikapen zuzena (NNZZ 1.3 irizpidea)	Uraren zikloaren prozesu eta fase guztiak zientifikoki zehatz eta osorik adierazita daude, akatsik gabe.	Uraren zikloaren fase gehienak behar bezala adierazita daude, zehaztasun falta txikiekin edo prozesuaren ulermen orokorrari eragiten ez dioten akats txikiekin.	Uraren zikloaren fase batzuk irudikatzen dira, baina zikloa erabat ulertarazteko elementuak falta dira edo akatsak egin dira.	Uraren zikloaren irudikapena ez da osoa edo ez da zuzena, hainbat fase falta dira edo gaizki interpretatzen dira, eta horrek erakusten du prozesuaren ezagutza eskasa dela.